

# IRABAZI ITURRIAK

Azken atal honetan, gure irabazi iturriez arituko gara. Alde batetik, gure proiektua martxan jartzeko beharrezkoa izango den diruaren jatorria eta kopurua azalduko dugu, eta horren ostean, jarduneko diru sarrerak, hau da, lana behin martxan jarri ondoren izango ditugun irabazi iturriak finkatuko ditugu.

Diru sarrera modura, bakoitzak 100€ soilik jarri beharko lituzke lokalaren alokairua ordaindu al izateko, erabiliko dugun garraiobidea ordaintzeko, eta beharrezkoa egingo zaigun materiala erosteko. Gainera, gastu hauek betetzeko gure diruaz gain, bankuan mailegu bat eskatuko dugu, 300€ ko mailegua.

## DIRU SARRERAK

Lankideok jarri beharreko totala	400 (100€ x 4)
Bankuari eskatutako mailegua	300€
Guztira	700€

Kalkuluak dioten arabera, 700€ koa izango litzateke martxan jartzeko beharrezko diru sarrera.

Bestalde, gure irabaziak eskoletatik jasoko diruan oinarrituko dira bereziki. Eskoletako zuzendariak gure proiektua erostean 1.500 € jasoko ditugu, prezio horietan salduko baitugu gure produktua. Konsziente gara hilabete batzuetan posible dela ezer ere ez irabaztea, eta beste batzuetan berriz asko irabaztea, egingo ditugun aurkezpenen arabera baita zenbaki hau. Hori kontuan izanik, hilabetero izango ditugun irabaziak aldakorrak izango direla argi dago.

Eskolez gain, Eusko Jaurlaritzak ere ordainduko digu; izan ere, hileroko 3.500€ emango dizkigu kontratazio modura, gure lana eta helburua Gipuzkoan zabaldua izan dezan. Gure kalkuluen arabera, kontratazio horrekin, gure kostuak asetzeko adina diru lortzera iritsiko gara gure soldatak ordaintzeko, bakoitzak 1.851€ inguru irabaziko baititugu hileroko kostuak kontuan hartuta. Horrek esan nahi du urtean 22.216€ aldera irabaziko genituzkela.

## IRABAZIAK HILERO

Hitzaldien bidez lortutakoa	6.000€ (1.500€ x 4)
Eusko Jaurlaritzaren kontratazioaren bidez	3.000€
Guztira	9.000€

